



mintza laguna

Mintzodromoa

Duela urte asko Bagerak Mintzodromoa antolatzen zuela entzun nion nire lagun maitea den Zuriñeri lehen aldiz, eta harrituta, hori zer zen galdetu nion.

Launaka jendea mahai baten inguruan elkartzen zutela azaldu zidan: euskaldun zahar bat eta hiru euskaldun berri, hamabost minutuz gai baten inguruan hitz egitea zela helburua.. Ideia berezia iruditu zitzaidan.

Banekien Euskararen Egunean antolatzen zela, eta hurrengo urteetan une eta leku desberdinetan Mintzodromoaren berri izaten jarraitu nuen. Ezezaguna zen niretzat , baina gertukoa sentitu nuen beti.

2014ko udazkenean, bigarren amatasun bajaran nengoela, Abenduaren 3an San Telmon Mintzodromoa egongo zela irakurri nuen. Segituan Zuriñeri deitu nion. Izena eman nahi nuela eta zer egin behar nuen azal ziezadan esan nion. Izena hartu, eta goizeko 10:00etan hara gerturatzeko esan zidan.

Urduri eta ilusioz beterik joan nintzen. Han ikusi nuen jendetzak harritu ninduen, jatorri eta adin desberdinetako pertsona ugari zeuden, ezagunak ere banituen batzuk, eta egoera anitz ikusi nituen: Jubilatu direnean euskara ikasi eta erabiltzeko saiakera egiten ari zirenak, lan orduetan euskara ikasteko aukera hartu zutenak, baita lanean egunero ibilita ere euskaltegira zihoazenak ere. San Telmoko gela handi eta hotz hartan, Euskararen aldeko magia agerikoa zen, nabarmena. Zerbait *handia* egiten ariko bagina bezala, Euskaraz hitz egiten ari ginen bitartean.

Nire lehen mahaian eseri nintzen. Horretarako ere, mahai eta talde nahasketa egiteko, urtaro eta batuketa formula berezia dute Bagerako hauek . Bertan hiru gizonekin egin nuen topo. Bakoitzak euskarari lotu, euskaltegira joan eta San Telmon egoteko arrazoi desberdinak zituen, eta helburua aldiz bakarra zen, euskaraz aritzea. Gaia, museoko margo-lanak ziren, gutako inork ez zekien asko arte-lanez, eta hala ere, euskaraz aritu ginen, hamabost minutuz, denbora arrapaladan pasata. Guztiak poz-pozik, berdin zuen norekin egokitu, eta zertaz hitz egin. Euskararekiko konplizitateak, begiruneak eta konpromisoak elkartzen gintuen, eta alaitasunez tarte bikaina pasa genuen. Oso praktikoa eta baliagarria zela egiaztatu nuen, Mintzodromoaren ideia ederra zela oso.

Egun hartatik, Mintzodromoa dagoen guztietan joan ahal izateko antolatzen dut nire burua. Martxoaren 27an egon nintzen azken mintzodromoan eta Barbara Argentinarrarekin topo egin nuen sarreran. Duela hiru urte iritsi zen Donostiara eta nire etxe azpiko tabernan lan egiten du. Angel ere bertan zegoen, euskaltegiko lagunekin sagardotegira joatekoa zen gero, baita Sorian jaiotako Miren ere, ospitalean lan egiten duelako euskaraz ikasten ari da. Ezin ahaztu duela bi urte mintzodromoan ezagutu nuen Mark txinatarrak zein ederki hitz egiten zuen euskaraz, edo bost hilabete Euskal Herrian bizitzen zeraman Errumaniako Bikik gure hizkuntzarekiko zuen interesa eta praktikatzeko gogoia. Nekane ere han zegoen, beti parte hartzeko prest. Nire inguruko euskaldun zahar eta euskaldun berri guztiei merezi duela esaten diet. Han batzen gaituen helburuak merezi du, eta guk geuk ere merezi dugu. Eskerrik asko Bagerako lagun guztiei posible egiteagatik! Nirekin kontatzen jarraitu!

Nerea Redondo Otamendi 2019-04-26

